

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Proiektu batek mendiko kirol-jarduerei lotutako toponimoak bildu eta zabalduko ditu

Horretarako, Euskarabideak eta Nafarroako Mendi Kirol Federazioak lankidetzeta-hitzarmen bat izenpetu dute

Jueves, 02 de febrero de 2012

Euskarabideak eta Nafarroako Mendi Kirol Federazioak lankidetzeta-hitzarmen bat izenpetu dute gaur aisialdiko eta mendiko kirol-jardueren esparruan erabilitako toponimoak biltzen, ofizialtzen eta zabaltzen laguntzeko helburuarekin.

Lankidetzeta horren oinarriak ezartzen dituen

testua, erakunde autonomoko zuzendari-gerente Maximino Gómez-ek eta federazioko presidente José Manuel Iriartek sinatu dute, toponimia-batzordeko arduradun Mikel Belasco ere izan den ekitaldian.

Lankidetzaren barnean toponimoak biltzea jasoko da; haien zehaztapen ofiziala, UNESCOren eta Euskaltzaindiaren adituen batzordeak ezarritako irizpideen arabera; eta haien zabalkundea federazioak erabiltzen dituen proiektu eta euskarrietan, esaterako, GR ibilbideak, kartografia...

Gogora ekarri behar da, bi erakundeek urteak daramatzatela Foru Erkidegoko mendiko hainbat ibilbidetan (GR-...) dauden toponimiak berraztertzen. Orain, ordea, federazioak hala eskatuta, lankidetzeta-eremu bat sortu da alor horretan ekintza sistematikoagoak garatzeko.

Hitzarmenean jasotzen denez, Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioak urtero txosten bat egingo du toponimo berriak proposatuz edo dauden toponimoetako akatsak zuzentzen, eta Euskarabideak proposamenak aztertzen eta haiek ofizialtzen lagunduko du. Ondoren, emaitzak ezagutzera emango ditu federazioak parte hartuko duen proiektu nahiz jardura guztietan.

Hitzarmenari jarraipena egiteko, batzorde bat eratuko da eta hura osatuko dute Euskarabideko hiru kidek (zuzendari-gerentea, presidente ariko dena; Euskararen Prestakuntza eta Sustapen Zerbitzuko zuzendaria; eta euskara-teknikari bat) eta Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioko bi kidek (presidentea eta toponimia-arduraduna).



Gómez-ek eta Iriartek hitzarmena sinatu dute.